

ALIMENTARIA

2026

BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2026ko martxoaren 23-26
- **Tokia:** Fira Barcelona, Gran Vía esparrua
- **Maiztasuna:** Bi urtekoa
- **Norentzat:** Elikagaien industriako profesionalak, oro har (banatzaileak, supermerkatu-kateak, handizkariak eta txikizkariak)
- **Izena emateko epea:** 2025eko maiatzaren 26a
- **Azokaren webgunea:** www.alimentaria.com

Alimentaria

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **ALIMENTARIA 2026** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZi-ren bitartez. Azoka, Bartzelona ospatuko da 2026ko martxoaren 23tik 26ra.

AZOKAREN IZAERA

Alimentaria Bartzelona Espainiako Nazioarteko Elikadura Azokarik garrantzitsuenak da eta munduko lehenetarikoa. Erreferentziazko ekitaldi honen arrakasta-faktoreak honako hauek dira: bere eskaintzaren espezializazio gorena, berrikuntza eta kanpobokazio nekaezina.

2026an, Alimentari azokak bere eskaintza berregituratu du kontsumo-ardatz eta -joera berrietan oinarrituta:

GROCERY FOODS
INTERNATIONAL PAVILLION
LANDS OF SPAIN
INTERCARN
INTERLACT
EXPOCONSER,
SNACKS, BISCUITS & CONFECTIONERY
COFFEE, BAKERY & PASTRY
RESTAURAMA
ALIMENTARIA TRENDS
ORGANIC FOOD
FINE FOOD

Alimentaria azokak, gainera hainbat ekintza paralelo eskaintzen ditu, besteak beste, **The Alimentaria Hub**, **Innoval**, **The Olive Oil Bar** eta **Food & Hospitality Startups**, non berrikuntzarekin, nazioartekotzearekin, gastronomia-ikuskizunekin eta abarrekin lotutako ekitaldi ugari izango diren...

AZOKAREN IZAERA

ALIMENTARIA 2026 DATUAK

Erakusketa
eremua:

100.000 m²

Ordutegia:

Al-Az 10etatik-19ak
arte
Og 10etatik-18ak
arte

Erakusleak
2024an:

3.200
enpresa 68
herrialdekoak

Bisitariak
2024an:

108.000
%25a
nazioartekoak
120
herrialdekoak

EUSKADI BASQUE COUNTRY STANDa

EUSKADI honako elikagai-areto hauetan egongo da (betiere gutxieneko enpresa-kopuru baten interesaren mende):

- **Land of Spain** (Hall 1): autonomia-erkidegoetako aniztasun gastronomiko bikaina 6.000 m²-ko erakusketa 505 erakusketarientzat.
- **Expoconser** (Hall 5): kontserbako elikagaiak, ketuak, gazituak, marinatuak eta aurrez prestatutako produktuak. 3.200 m²-ko erakusketa 113 erakusketarientzat.

Euskadiren ordezkaritzak leku mugatua du. Lekua baino enpresa interesdun gehiago egonez gero, **aukeraketa** bat egingo da, **izena emateko hurrenkeraren arabera**.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egoitza **Euskadin** duten eta Eusko Jaurlaritzaren **Elikagaien Industrien Erregistroan** inskribatuta dauden **enpresa ekoizleak** baino ezingo dute parte hartu ekitaldi honetan.

AZOKAREN AURRETIK

- Enpresak ordezkarik bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta kuota ordainduko du. Euskadiren pabiloian egongo dela jakinarazi ondoren, ezin izango da baja eman. Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Enpresek nahitaez agertu beharko dute ekitaldia hasiko den egunaren bezperan, adierazitako orduan, merkantzia jasotzeko eta beren standen dekorazioa azkentzeko, ekitaldia hasi baino lehen, nahikoa aurrerapenarekin.
- Enpresa azokaren ordutegi ofizialean standetik joango balitz arrazoitutako aparteko arrazoirik gabe, azokaren hurrengo edizioan galdu egingo lituzke lehentasunezko eskubideak (izena emateko hurrenkera, etab...). Haren eskariari izena emateko eta ordainketa egiteko datetan egin diren gainerako eskariak aintzat hartu ostean baino ez litzaioke erantzungo.
- Halaber, enpresa batek edo hainbatek standa uztearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak, bertaratze taldekatuaren antolatzailea izanik, azokaren antolakuntzaren aldetik zehapen ekonomikoren bat jasoko balu, zehapen hori berehala jasanaraziko litzaioke arau haustea eragin duen enpresari edo enpresei.

AZOKAN ZEHAR

- Erakusten diren produktuek soilik Euskadin ekoizitakoak izan beharko dute. Inola ere ezin izango da ez aipatu, ez aurkeztu, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik.
- Bere standean egon azokako egun guztietan eta irekiera-ordutegi osoan.

AZOKAREN ONDOREN

- Ebaluazio-inkesta egin; antolakuntzaren jarraibideen arabera bete eta entregatu beharko dute.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

PARTE HARTZEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritza ALIMENTARIA 2026ko hurrengo pabiloi hauetan egongo da:

- Lands of Spain
- Expoconser

Euskadiko Stand-a Lands of Spain pabilioiaren barruan dago. Expoconser-en kokapena ez dugu gaur egun ezagutzen.

• **Stand INDIBIDUALA** eredua

• **Stand BIKOITZA** eredua

• **Stand PARTEKATUA** eredua

(betiere eredu honetan interesa duten gutxieneko enpresetara iristen bada)

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

PARTE HARTZEKO KOSTUA

ALIMENTARIA 2026an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailetik Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektoreko produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

Hona hemen parte hartzeak dakarren kostua finantzatzeko diru-laguntzetarako egingo den sailkapena.

GARRANTZITSUA:

Stand indibidualen esleipena izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da, eta ezinbestekoa izango da **ordainketaren egiaztagiria**, zure enpresak **zerga-betebeharrak** eta **Gizarte Segurantzarekikoak** egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea eta **izena emate formularioa** betetzea.

Lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.



ENPRESA MOTA 1

Batez ere Euskadiko lehengaiak hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du. Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza %70era artekoa izango da:

- **Stand partekatua:**
1.650 € + IVA = 1.996,50 €
- **Stand indibiduala:**
3.300 € + IVA = 3.993 €
- **Stand bikoitza:**
6.600 € + IVA = 7.986 €

ENPRESA MOTA 2

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioerik egon ez eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak. Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza %50era artekoa izango da:

- **Stand partekatua:**
2.750 € + IVA = 3.327,50 €
- **Stand indibiduala:**
5.500 € + IVA = 6.655 €
- **Stand bikoitza:**
11.000 € + IVA = 13.310 €

ENPRESA MOTA 3

Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egon arren Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak. Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen dirulaguntza %30era artekoa izango da:

- **Stand partekatua:**
4.000 € + IVA = 4.840 €
- **Stand indibiduala:**
8.000 € + IVA = 9.680 €
- **Stand bikoitza:**
16.000 € + IVA = 16.360 €

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

IZENA EMATEKO EPEA: 2025EKO MAIATZAK 26

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainketaren frogagiria, zure enpresak zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea: agro@camarabilbao.com

Enpresa parte hartzaileen **hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera** egingo da eta lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari** atxikita dauden enpresei.

Eskabidea osorik egon dadin eta kontuan har dadin, honako hauek bete beharko da:

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik, datuak zehazki transkribatuko dira zokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

IZENA EMATEAK

KUOTAREN ORDAINAGIRIA BIDALI

Kontu zenbakia: Laboral Kutxako
ES49 3035-0179-61-1791069900
HAZI Fundazioaren izenean.

Laboral Kutxako BIC : CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena +
ALIMENTARIA 2026".

ZINPEKO ADIERAZPENA BIDALI

Derrigorrezkoa da enpresa eskatzaileek **Zinpeko Adierazpen** bat aurkeztea lehengaiaren jatorriari buruz, sinatuta eta zigiluarekin.

- HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak izena ematearen kuotaren zenbateko totalaren faktura bidaliko dizue.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

GARRANTZITSUA

Enpresa parte-hartzaileak hautatzeko, izena emate-agiri guztiak (formularioa eta ordainagiria) jaso diren hurrenkerari jarraituko zaio. Izena emate-data, ondorio guztietarako, inskripzioaren ordainketa egin den eguna izango da, eta lehentasuna emango zaie Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari atxikita dauden enpresei.

Eskatutako izena emateko formularioa betetzeak EZ DAKAR enpresak Euskadiren pabiloian parte hartzea; izen-ematea onartu dela jakinaraziko da.

ENPRESAK FAKTURA JASO, HAU DA, EUSKADIREN STANDEAN SARTZEAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN PARTE-HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halaberrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

1 Espazioa kontratatzea

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako pertsonalizatutako stand indibidualetan banatuko da.

2 Stand-aren dekorazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko erakustoki guztietarako uniformeak izango dira standaren dekorazioa eta oinarritzko altzariak, eta elementu hauek izango dituzte:

- **Stand INDIBIDUALA:** 1 mahaia eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresaren errotulu 1, konexio elektrikoa, hozkailu txikia eta biltegia.
- **Stand PARTEKATUA:** erakusmahaia eta bilera-gune komuna, bai eta biltegi komun bat ere.

3 Stand-aren mantentze-lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura...)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, pabiloia egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehieneko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie erakusketakideei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean.

Oharra: oinarritzko altzariak, elementu elektrikoak edo behar elektrikoak aldatzen badira, kostuaren igoera edo aldaketa eragiten badu, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusleari, eta enpresa horren kontu izango da zenbatekoaren igoera.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

4 Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du, esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte. Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Garraioaren kontratazioa indibiduala izango da; ondorioz, garraiolariak zuzenean bidaliko dio enpresa erakusleari merkantzia bidaltzearen kostua, eta zerbitzua enpresaren kontu joango da.

5 Hotz-ganberak eta beste etxetresna elektriko batzuk

Hotz kameren eta beste etxetresna elektrikoen alokairua erakuslearen kontu izango da. Halere, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila enpresen esanetara jartzen da zerbitzu hori kontratatzea koordinatzeko, eta hornitzaileak zerbitzuak zuzenean erakusleari fakturatuko dizkio.

6 Azokaren katalogo ofizialean agertzea

Eusko Jaurlaritzak egin beharreko izapideak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko, non jardunaldiaren erakusle guztiak agertzen diren (izena emateko formularioan emandako datuak agertuko dira).

7 Komunikazio- eta zabalkunderako kanpaina

Eusko Jaurlaritzak azokan izango dugun presentziari buruzko komunikazio masiboko kanpaina bat egingo du prentsa espezializatuan eta erosle potentzialen artean, eta gure enpresak bisitatzera eta gure produktuak dastatzera gonbidatuko ditu.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

8 Azokaren sustapen jarduerak

Azokaren esparruan programatzen diren jarduera, foro, hitzaldi eta tailer ugari egiten dira. Gainera, Alimentariak horietan guztietan pare hartzeko aukera ematen dizu, ikusgaitasun eta nabarmentasunik handiena lortzeko.

7 Negozio-aukerak

Alimentariak hainbat tresna eskaintzen ditu topaketaren presentzia optimizatzeko, harreman komertzialak eta aldebiko bilkurak egitea errazten dituzten ekintzen bitartez, erakusleen eta nazioarteko erosleen arteko lankidetzak, banaketa eta berrikuntza bultzatzeko. Horrekin, nekazaritzako elikagaien industria atzerrian lehiakorragoa izatea lortu nahi da. Ekintza interesgarri guztien gaineko informazio zehatza emango da.